

 AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H	IL0044	Biztanleen Udal Errolda: Datu aldaketa
---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------	-----------------------------------------------

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Dagoeneko erroldatuta dagoen pertsona baten erroldako datuetan egiten den aldaketa da, datuak, helbidea... aldatzeagatik, Amorebieta-Etxanoko udalerraren barruan. Ez du Amorebieta-Etxanoko erroldan bajarik eragiten.

NORK ESKA DEZAKE?

Interesatutako edozeinek.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E063 Erroldatzeko baimena](#)
- [E067 Amaren/Aitaren erantzukizun-adierazpena udal-erroldan adingabe emantzipatugabearen izena emateko edo helbidea aldatzeko](#)
- [E068 Udal-Erolda inskripzio orria \(A3\)](#)

Documentación personal

- Erroldan alta hartuko duten pertsona guztien jatorrizko NAN (ezinbestekoa 14 urtetik aurrera, 16 urte arte NAN barik erroldan alta hartzea baimentzen den arren).
- Adingabeak: Familia liburua, bizikidetzaren unitatea direla, eta baita kargura dituzten seme-alabak egiaztatzeko.
- Guraso bakarrarekin erroldatzea bilatzen bada, Epai bidez egiaztatu beharko da adingabearen guardia edo zaintza edo, bestela, beste gurasoaren baimena izatearen Erantzukizunpeko adierazpena egin beharko da (E067 Errolda: Adingabeen Adierazpena).
- Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrak: indarrean dagoen bizileku baimena (NIE), horrelakorik badute eta, bestela, Jatorrizko Herrialdeko dokumentazioa indarrean (Pasaporte).
- Europar Batasuneko atzerritarrak: indarrean dagoen bizileku baimena (NIE), horrelakorik badute eta, bestela, Jatorrizko Herrialdeko NAN indarrean.

Etxebizitzari buruzko dokumentazioa

- Etxebizitzaren sal-erosketa eskritura, duela denbora gutxi egin bada. Bestela, Udalak titulartasuna egiaztatu ahal izango du.
- Indarrean dagoen errentamendu kontratua.
- Erabilera eskubideari buruzko beste titulu batzuk (epai judiziala, dibortzioa gertatuz gero, testamentuak, dohaintzak, etab.).
- Etxebizitzaren jabearen edo errentariaren baimena. Pertsona hori ez badago izena ematen dutenen artean, bere baimena eman beharko du, izena emateko orria sinatuz eta bere NA edo NIE aurkeztuz. Halaber, baimena ematen duen pertsonak etxebizitzaren jabea edo erabiltzeko eskubideduna dela egiaztatu beharko du (E063 Errolda: Etxebizitza Baimena).

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Ez da inolako tasa edo prezio publikorik ordaindu beharko.

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Berehala

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 3 hilabete

Isiltasun-administratiboaren izaera: Aldekoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [15/1999 Legea, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babestekoa](#)
- [7/1985 Legea, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituena](#)
- [1690/86 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, Toki Erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudia onartzen duena eta Lurralde Mugen Araudia 68. art.](#)
- [14/2003 Lege Organikoa, azaroaren 20koa, 4/2000 Lege Organikoa aldatzen duena.](#)
- [Urtarrilaren 10eko 4/1996 Legea, udal erroldari dagokionean Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duena.](#)
- [Abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretua, uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Entitateen Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Erregelamendua aldatzen duena.](#)
- [2015eko martxoaren 16ko ebazpena, Idazkariordetzarena, udalei udal erroldaren kudeaketari buruzko jarraibide teknikoak ematen dizkien 2015eko urtarrilaren 30eko ebazpena argitaratzen duena](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Eskaria eta dokumentazioa erregistratu.
2. Aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu, identifikazio pertsonalari dagokiona zein etxebizitzakoa.
3. Biztanleen Udal Erroldan izena eman.
4. Izena emandako pertsona bakoitzaren Errolda Ziurtagiria eman, izapidearen justifikazio gisa.
5. Egiaztapena unean bertan egin ezin daitekeen balizkoetan, eskaria egin eta berau aztertzearen zain geratuko da
6. Ondorengo izen ematearen edo ezezko ebazpenaren jakinarazpena, hala denean

NORK ONARTU BEHAR DU?

Alkatetza

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Zerbitzu Orokorrak - Idazkaritza

OHARRAK

Unean bertan ebatzi ez diren izen emate eskariak ondorengo izen emate jakinarazpen bitartez edo ezezko ebazpenaren

bidez jakinaraziko dira, 3 hilabeteko epean, gehienez.

Informazio gehiago

estadistika@amorebieta.eus

Udala: 94.630.00.02